

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, postreen eskari handia dago; gazteek zein zaharrek egunero kontsumitzen dituzte produktu horiek. Bai hamaiketakoetan, bai bazkarietan, bai ordu artean. Hala ere, ez dute askatasunik nahi dutena zehazki aukeratzeko, gure enpresak merkatuko hutsune hori estali nahi du eta kontsumitzaileei askatasun hori eman nahi die beren nahiak asetzeko, produktuak pertsonalizatzeko aukera emanez.

Gure negozioa okindegi bat da, Umpa Lumpa izeneko, eskaintzen ditugun produktuak pertsonalizatzeko aukera ematen dugu, opilak, napolitanak, tartak, pastelak... eta horrelakoak aurki daitezke. Denda fisikoan erosteari dagokionez, produktuak pantaila digitalen bidez pertsonalizatu daitezke, beste hainbat enpresak erabiltzen dituzten bezala. Hala ere, gure produktuak aukeratzeko aplikazio bat ere badugu, eta "Glovo" rekin dugun lankidetzari esker, eskaerak begi-itxi batean heltzen dira erosleen etxeetara.

Umpa Lumpa izena erabakitzeke Tim Burtonen film batean oinarritu gara, Charlie eta txokolatzeko lantegian zehazki. Umpa Lumpak lantegi barruan postreak egiten aritzen ziren eta gure okindegiarekin konparatu dugu. Gure berezok Umpa Lumpak bihurtzeko aukera izango dutelako, haien postreak sortzeko ahalmena eta askatasuna izango baitute.

Gure negozioarekin lortu nahi duguna da, orain arte, okindegien segmentuan ikusi ez den zerbait eskaintzea, erosleak askeak eta etxean bezala sentitzeko.

